

DONOSTIALDEKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA

154/2020 EBAZPENA, otsailaren 26koa, Donostialdeko ESIko zuzendari gerentearena. Honen bidez, M^a Belén Ferreras Ibeas andrea Gainbegirale (Unitatea: Torax kirurgia/Aurpegi/ORL 2.2) izendatu da, izendapen aske bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdea ESlan.

450/2019 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdea ESlan Gainbegirale (Unitatea: Torax kirurgia / Aurpegi / ORL 2.2) lanpostu bat izendapen aske bidez betetzeko deialdia onartu zen.

Balorazio batzordeak aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta M^a Belén Ferreras Ibeas andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori izendatzea, izendapen aske bidez, Gainbegirale (Unitatea: Torax kirurgia/Aurpegi/ORL 2.2) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko ESlan.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. Artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera

EBAZTEN DUT:

Lehena.- M^a Belén Ferreras Ibeas andrea Gainbegirale (Unitatea: Torax kirurgia/Aurpegi/ORL 2.2) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko ESlan.

Bigarrena.- Izendapen honi dagokionez, ondoriotarako data hau izango da: 2020ko otsailaren 1ea.

Hirugarrena.- Izendapenak egin dituen organoak diskrezionalki kargugabetu ditzake, izendapen askeko sistemaren bidez dagozkion lanpostuetan izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo lanpostutik mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko dela, baina edonola ere, interesdunak duen kategoriori dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik betetzen zuen lanpostuak zeuzkan ezaugarri berberekin antolakuntzari eta lurraldetasunari dagokionez. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta Osakidetzak berak ezarritako prozedurari jarraituz gauzatuko da. Lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.- Ebazpen hau interesdunari eta Donostialdeko ESlari jakinaraziko zaie.

Bosgarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostian, 2020ko otsailaren 23an

ZUZENDARI GERENTEA
E.: Pertsonaleko Zuzendaria
(53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa)


Izpta.: Esther LITAGO SOLA